


ezagutzen al
duzu Donostia?

Ursoko

Ursoko
mendia
Urdaburu
eta Agiña
mendietako
ospeleko
hegietan.



Hernanitik abiatuta, Uru-
mea ibaian gora, Ereñotzu
auzo xarmanta pasa ondoren
Latxera heltzen gara. Hemen
ibai nagusia utzi eta gure
ezkerraldeetik datorren erre-
karen ondoko bide estua hartu-
tuta, 100 metro aurrera
jarraituz, *Latxe Zar* baserri-
ren hondakinak aurkituko
ditugu bide ondoan. Hauen
erdian, harrizko zutabe baten
gainean, berriz, Jose Manuel
Lujanbio «Txirrita»ren iru-
dia. Bai, historian zehar izan
dugun bertsolari handiaren
sortetxea izan zen *Latxe
Zar* baserri hura. Gure «Txir-
rrita» handiaren oroigarria
pasa eta arestian, *Ursoko*
deituriko mendian sartzen
gara. Gaur egun gehien bat
izen honekin *Agiñamendiko*
iparraldeko hegari deitzen
zaio, baina XIX. mendera
arte Donostiarenak izan
ziren mendi hauek, lehen
lurralde gehiago hartzen
zituzten. *Latxetik* hasi
(mendebaldean) eta *Izenede-
rraino* (ekialdean) zabaltzen
ziren. Iparraldetik *Akola* eta



Txirritaren oroitarria Latxezar bere sortetxeko hondakinen gainean.

Artolategiko sarobeak zituz-
ten; hegoaldeetik berriz,
Urdaburu eta *Agiña* mendie-
tako ospelaldeko hegiak.
Ursoko Urumeako zilegieta-
ko zati handi bat zen eta bert-
tako lur, larre eta basoak
Hernani, Astigarraga eta
Donostiako hainbat baserri-
tarrek erabiltzen zituzten.
XIX. mendearen bukaeran
Donostiako Lugaritz auzoko
Zuatzu baserritik joaten
ziren garoa jasotzera. Aipatu
baserri honetan neronek jaso
nuen datu hau. Rikardo Iza-
girre donostiar historialari

handiak «Leireko emaitzari»
egindako oharretan Ursokon
eskubideak zituzten baserri
donostiar hauek aipatzen
ditu: *Goiatz Aundi*, *Agirre*,
Irola, *Polloe* (Amarakoa),
Aranburu, *Miramón*, *Katxo-
la* (zarra eta berria), *Aiete*,
Zabalegi, *Oriamendi*, *Mer-
kelin*, *Pagola*, *Lugaritz*,
Añorga, *Amassorrain*, *Una-
nue*, *Loistegi*, *Muñoa*, *Iri-
bar*, *Zugastieder*, *Loistarain*,
Berio Goia, *Amezketza* (goia
eta behea) eta *Ekogor Aundi*.

ARGAZKIAK ETA TESTUA: JOSU TELLABIDE

La Casa del Café

Juan Irujo S.A.
DONOSTIA

